**Zk-4381**

213/1998 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen Dekretua aldatzen duena.

Otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuaren bidez finkatu egin ziren Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak.

Ondoren aipatzen diren xedapenak indarrean jarri dira: Euskal Autonomia Erkidegoaren Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legea; hau garatzen duen arauteria; Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrenganako Bermedun Sozietateei buruzko uztailaren 16ko 178/1996 Dekretua eta aseguruen artekariei buruzko eskumenen transferentzia ere egikaritu da. Ondorioz, egokitu egin behar da 173/1995 Dekretua, finantzen arloan eskudunak diren organoei dagokienetan.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Lehendakariak aurrez onarpena eman ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko abuztuaren 31n egin zuen bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.*– Ogasun eta Finantza Sailordetza.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuko 13.2.b) ataleko 3)tik 6)ra arteko idazatiak honako era honetan idatzita gelditzen dira:

«3) Aseguruen artekari-jardunak burutu ahal izateko baimenak ematea eta baimenak kentzea.

4) Azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 25.2 atalean aipatzen diren aurrerakin-eskabideak egitea eta, hala behar izan dadinean, gerorapenak ematea. Euskal Autonomia Erkidego Osorako Instituzioen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzkoa da lege hori.

5) Zorren gerorapen eta zatikapenen eskabideei izapideak eginarazi eta ebazpena emateari dagokienetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorreko Dirubilketari buruzko Erregelamenduan, diruzaintza arloan, Sailari ematen zaizkionak.

6) Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legeko 41.1 atalean, bermeak eskaintze-arloan eskumena duen Sailari ematen zaizkionak, berme horiek formalizatu, aldatu eta sendeste arloei dagokienetan hain zuzen».

**N°-4381**

DECRETO 213/1998, de 31 de agosto, por el que se modifica el Decreto por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

La estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública viene establecida por el Decreto 173/1995, de 28 de febrero.

La entrada en vigor de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad de Euskadi y de la normativa que la desarrolla, del Decreto 178/1996, de 16 de julio, de Sociedades de Garantía Recíproca de Euskadi, así como la efectividad de la transferencia de competencias en materia de mediadores de seguros, requieren la adecuación del citado Decreto, en lo relativo a los órganos competentes en materia de finanzas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 31 de agosto de 1998,

DISPONGO:

*Artículo primero.*– Viceconsejería de Hacienda y Finanzas.

Los apartados 3) a 6) del artículo 13.2.b) del Decreto 173/1995, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública quedan redactados de la forma siguiente:

«3) Las autorizaciones y revocaciones de autorización para el acceso a actividades de mediación de seguros.

4) La solicitud de anticipos y la concesión, en su caso, de aplazamientos a que se refiere el artículo 25.2 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

5) La tramitación y resolución de solicitudes de aplazamiento y de fraccionamiento de deudas atribuidas al Departamento competente en materia de tesorería por el Reglamento de Recaudación de la Hacienda General del País Vasco.

6) Las atribuidas al Departamento competente en materia de prestación de garantías por el artículo 41.1 de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, relativas a formalización, modificación y ratificación de las mismas».

*Bigarren atala.–* Finantza Zuzendaritza.

1.– Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuko 16. ataleko b)tik f)ra arteko idazatiak honako era honetan idatzita gelditzen dira:

«b) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrenganako Bermedun Sozietateei buruzko uztailaren 16ko 178/1996 Dekretuaren indarrez, finantza-politikaren eta finantza-entitateekiko harremanen arloetan eskumenak dituen Sailari emandako egitekoak. Ez dira horretan sartzen Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren Administrazioen egitekoak, hauek sailburuari baitagozkio.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Orokorrari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren indarrez diruzaintza arloan eskumenak dituen Sailari emandako egitekoak; eta bereziki honako hauek, hau da, ordainketak egin daitezeneko aginduak ematea eta azaroaren 8ko 8/1996 Legeko I. Idazpuruko II. Atalburuan xedatzen denari jarraituaz kontzertatutako diruzaintza-eragiketen kudeaketa burutzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzkoa da lege hori.

d) Borondatezko aldiko dirubilketaren kudeaketaren zuzendaritza, hau da, zergapekoak izan eta zuzenbide publikopeko diru-sarreren gainekoa, baina ez prezio publikoena; horretaz aparte, honako beste egiteko hau ere bai, alegia, edozein kontzeptupeko diru-bilketen kudeaketa, horien zuzendaritza eta bai gainbegiraketa ere, baina exekuzio aldian bakarrik. Ondorio hauetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Dirubilketari buruzko Erregalemenduan diruzaintza arloan agintedun Sailari ematen zaizkion eskumen guztiak dagozkio, baina ez zorren gerorapen eta zatikapenen gainekoak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legeko 32.1 eta 34.2 ataletan aipatzen diren kreditu edo mailegu eragiketen erabateko kudeaketa eta bai Euskal Autonomia Erkidegoaren Zor Publikoarena ere; Sailburuak lege horretako 27. atalean xedatzen denaren arabera baimendutako eta zorpetzeekiko osagarrizko eragiketen ezaugarriak finkatzea; eta Zuzenbide Pribatupeko Entitate Publikoek eta Sozietate Publikoek, lege horretako 35. atalean xedatzen denari jarraituaz, eman dezakete zorpetze-eragiketetarako baimena.

f) Prestatutako Bermeen Erregistroaren kudeaketa eramatea eta, ondorioz, bermeak emateari buruzko martxoaren 18ko 54/1997 Dekretuak erregistro horretako organo kudeatzaileari ematen dizkion egitekoak ere bai. Euskal Autonomia Erkidegoak bermeak emateari buruzkoa da dekretu hori. Hala ere, Zuzenbide Pribatupeko En-

*Artículo segundo.–* Dirección de Finanzas.

1.– Los apartados b) a f) del artículo 16 del Decreto 173/1995, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública quedan redactados con el siguiente contenido:

«b) Las atribuidas al Departamento competente en materia de política financiera y relaciones con las entidades financieras por el Decreto 178/1996, de 16 de julio, de Sociedades de Garantía Recíproca de Euskadi, salvo las relacionadas con Administraciones distintas a la de la Comunidad Autónoma, que corresponden al Consejero.

c) Las atribuidas al Departamento competente en materia de tesorería por el Decreto 211/1997, de 30 de septiembre, de la Tesorería General del País Vasco, en especial el mandamiento de pagos, y la gestión de las operaciones de tesorería concertadas al amparo del capítulo II del Título I de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

d) La dirección de la gestión recaudatoria, en período voluntario, relativa a ingresos de derecho público no tributarios, excepto precios públicos, y la gestión recaudatoria por cualquier concepto, incluida su dirección y supervisión, en período ejecutivo. A estos efectos, le corresponden todas las competencias atribuidas en el Reglamento de Recaudación de la Hacienda General del País Vasco al Departamento competente en materia de tesorería, excepto las relativas a aplazamiento y fraccionamiento de deudas.

e) La gestión integral de la Deuda Pública de Euskadi y de las operaciones de crédito o de préstamo a que se refieren los artículos 32.1 y 34.2 de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi; la determinación de las características de las operaciones accesorias al endeudamiento autorizadas por el Consejero conforme al artículo 27 de dicha Ley; y la autorización de operaciones de endeudamiento de Entes Públicos de Derecho Privado y Sociedades Públicas, conforme al artículo 35 de la misma Ley.

f) La gestión del Registro de Garantías Prestadas y, en consecuencia, las que el Decreto 54/1997, de 18 de marzo, de prestación de garantías por la Comunidad Autónoma de Euskadi, atribuye al órgano gestor de dicho Registro. No obstante lo anterior, la autorización para la prestación de garantías por los Entes Públicos de

titate Publikoek eta Sozietate Publikoek eman beharreko bermeak eskaintzeko baimena sailburuak eman behar du. Azaroaren 8ko 8/1996 Legeko 51. atalean aipatzen da baimen hori eta Zuzenbide Pribatupeko Euskal Autonomia Erkidegoaren Finantzei buruzkoa da legea».

2.– Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuko 16. atalean, i) letradun idazatia gehitzen da. Hauxe da bere edukina:

«i) Erregistroak eramatea, jardunen segimendua egitea, ikuskaketa, zigor-espedienteei izapideak eginaraztea eta aseguruen bitartekari-arloan burutu behar diren gainontzeko guztiak. Ogasun eta Finantza sailburuordeari dagozkionak ez dira horretan sartzen eta diplomak ematea, berriz, sailburuari dagokio».

INDARGABETZE XEDAPENA

Honako hauek indargabetuta gelditzen dira:

a) Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak finkatzen dituen otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuko xedapen gehigarrietatik bigarreneko 2. eta 3. lerroaldeak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoak eman beharreko bermeei buruzko martxoaren 18ko 54/1997 Dekretuko 12. ataleko 2. lerroaldea. Ondorioz, atal horrek gaur egun duen 1 lerroaldea zenbakirik gabe gelditzen da.

AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea.

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren hurrengo hileko lehenengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 1998ko abuztuaren 31n.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri
Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Derecho Privado y por las Sociedades Públicas, establecida en el artículo 51 de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, corresponde al Consejero».

2.– Se introduce un apartados i) en el artículo 16 del Decreto 173/1995, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública con el siguiente contenido:

«i) La llevanza de registros, el seguimiento de actividad, la inspección, la tramitación de expedientes sancionadores y todas las demás de ejecución en materia de mediadores de seguros, salvo las atribuidas al Viceconsejero de Hacienda y Finanzas y la expedición de diplomas que corresponde al Consejero».

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados:

a) los párrafos 2 y 3 de la disposición adicional segunda del Decreto 173/1995, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, y

b) el párrafo 2 del artículo 12 del Decreto 54/1997, de 18 de marzo, de prestación de garantías por la Comunidad Autónoma de Euskadi. En consecuencia, el actual párrafo 1 de dicho artículo pierde la numeración.

DISPOSICIÓN FINAL

Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día primero del mes siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 31 de agosto de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda
y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.